

## Idazki Desktop Linux instalatzea

### Sarrera

Izenpek Idazki Desktop eskaintzen du 32 biteko eta 64 biteko Linuxerako. Ohar tekniko honek azaltzen du nola egin instalazioa banaketa arruntenetan:

- ✓ Ubuntu
- ✓ Fedora
- ✓ OpenSuse
- ✓ Mint


### Urratsak

1. Lehenik, makinan instalatutako sistema eragilearen bertsioa (32 edo 64 bit) jakin behar da. Horretarako, exekutatu komando-lerrotik:

```
uname -m
```

“x86\_64” itzultzen bada, zure ekipamendua 64 bitekoa da. Aitzitik, “i686” agertzen bada, zure ekipamendua 32 bitekoa da.

2. Deskargatu dagokion bertsioa. Horretarako, sakatu eskuin botoia estekaren gainean:



3. Deskargatutakoan, exekutatu fitxategia deskargatu den bidetik:
  - ✓ 32 biteko bertsioa bada → `sh ./idazki-desktop-linux32.run`
  - ✓ 64 biteko bertsioa bada → `sh ./idazki-desktop-linux64.run`